



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko abenduaren 15a

148. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00358. Galdera, Larrauko mendatea irekitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00359. Galdera, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautu eta arte-irakaskuntza profesionalen antolaketa eta baliokidetasunak ezartzen dituen ekainaren 7ko 1/2024 Legearen ezarpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-25/PES-00360. Galdera, Cintruénigoko La Paz BHIa handitzeko obren hasierari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-25/PES-00361. Galdera, Letizia Ortiz Lanbide Heziketako 2025-2026 ikasturteari hasiera ofiziala emateko ekitaldian parte hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-25/PES-00362. Galdera, Migratzaileentzako Kulturarteko Bitartekari tza Komunitarioko Zerbitzua ize-neko zerbitzu-kontratuaren lizitazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00363. Galdera, Sendaviva parkeari buruzko kanpo-auditoretzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-25/PES-00364. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Israelekin dituen proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-25/PES-00365. Galdera, Catella Group-ek kudeatutako alokairuko etxebizitza babestuetan alokatutako 168 familien jarraitutasuna bermatzeko arazoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-25/PES-00366. Galdera, Nafarroan goi-tentsioko sarerik ez duten eremuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-25/PES-00367. Galdera, Miranda Argako ikastetxe publiko berriaren proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-25/PES-00368. Galdera, Arraizko saihebideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-25/PES-00369. Galdera, Euskal Udalekuak entitateak antolatutako udalekuetan Nafarroako Gobernuak aire zabaleko gazteentzako jardueri buruz onetsitako araudia betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- 11-25/PES-00370. Galdera, jakiteko ea Euskal Udalekuak entitateak antolatutako udalekuei buruzko salaketen berri eman ote zioten Eusko Jaurlaritzak edo Ertzaintzak departamentuari. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-25/PES-00371. Galdera, Nafarroan tren-azpiegiturak koordinatzeko eta bultzatzeko lantaldea sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-25/PES-00372. Galdera, Valle de Odietaren egungo eta baimendutako AzLU-ei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-25/PES-00373. Galdera, Nafarroa Marka “herri-proiektu” gisa izendatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-25/PES-00374. Galdera, jakiteko ea arriskuan dagoen Nafarroan instalatzeko interesa erakutsi duen datu-tratamenduko proiekturen bat. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-25/PES-00375. Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren arteko bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-25/PES-00376. Galdera, lehendakariaren agenda publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-25/PES-00377. Galdera, Foruzaingoak Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren salaketari emandako erantzunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00358. Galdera, Larrauko mendatea irekitzeari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Larrauko mendatea irekitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 17ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, 11-25/PES-00358 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Iturzaetako mendateaz eta Nafarroa eta Zuberoaren arteko mugan dagoen mendate horren neguko mantentze-lanei buruz. Bada, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak hau jakinarazten du:

1. Lurralde Kohesiorako Departamentuak elkarrikerarik izan al du Pirinio Atlantikoetako Departamentuko agintariekin, aurtengo neguan Iturzaetako mendatea irekita egon dadin?

Jakinarazten dizut 2025 honetan Lurralde Kohesiorako Departamentuko Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiko Zainketa Zerbitzuak elkarrizketak izan dituela San Martiko Harria mendatearen ardura Pirinio Atlantikoetako Departamentuekin.

Zainketa Zerbitzuari jakinarazi diotenez, NA-2011 tokiko errepidea, Frantziako aldean, itxita egoten da negualdian, azarotik apirilera bitartean, eta eguraldiaren baldintzak egokiak direnean irekitzen da.

2. Zer aurreikuspen darabil Lurralde Kohesiorako Departamentuak horri dagokionez?

NA-2011 Zaraitzu–Frantzia tokiko errepidearen 2025-2026 neguko kanpainarako mantentze-lanei dagokienez, Lurralde Kohesiorako Departamentuak darabiltzan aurreikuspenak aurreko urteetakoak bezalakoak dira, hau da, zirkulatzeko baldintza egokietan mantentzea 0+000 kp-tik (Foru Komunitatearen intereseko NA-140 errepidearekiko bidegurutzetik) 6+700 kp-raino (Abodiko eski-estazioraino, aparkalekuak eta estaziorako sarbideak barne) doan errepide-zatia, alegia, estazio horren erabiltzaileei zerbitzu ematen dien zatia.

6+700 kilometro-puntutik aurrera, 10+830 kilometro-puntuan (Frantziako mugan) errepidea amaitzen deneraino, bidea zirkulaziorako itxita geratuko da lehendabiziko elurte handia izaten denetik; izan ere, errepidean eroritako elur-bolumena dela eta, ezinezkoa izaten baita errepidea garbitzea bulkadazko baliabide konbentzionalekin (falka duten elurra kentzeko makinekin, mendatearen lehen zatian erabiltzen direnekin).

Bide hori ixteko zergatietako beste bat izan daiteke Pirinio Atlantikoetako Departamentuak posta elektronikoko bidez jakinaraztea Errepideak Zaintzeko Kontrol Zentroari edo Zainketa Zerbitzuari bide hori itxi egiten dela Frantziako aldean, dela arrazoi teknikoengatik, dela bide-segurtasunagatik.

Negualdia amaitu ondotik irekiko da berriro, apirilean, normalean Aste Santua baino lehen, Zaraitzuko Batzar Nagusiak espresuki hala eskatuta eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuaren elurra garbitzeko baliabideekin koordinatuta, ez baita zentzuzkoa Frantziako aldean itxita dagoen bitartean mugarainoko zatia irekitzea.

3. Aurtengo neguan ere itxita egonen al da Iturzaetako mendatea?

Eguraldi iragarpenaren arabera ixteko aurreikuspenak esan nahi du Iturzaetako mendatea, NA-2011 Zaraitzu–Frantzia errepidean, itxita egonen dela negualdian, 2025eko azaro-abendutik 2026ko apirilera bitartean.

Elurte handi baten ondoren (elurra 100 cm-tik gora loditzen duenean), neguan bide hori behin-behinean irekitzea ezinezkoa izanen litzateke ikuspuntu teknikitik (mugaren bi aldeetan), baita bide-segurtasunaren eta elurra garbitzen aritzen diren langileen segurtasun pertsonalaren ikuspegitik ere, errepideak gaur egun dituen ezaugarri geometrikoak direla eta.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00359. Galdera, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautu eta arte-irakaskuntza profesionalen antolaketa eta baliokidetasunak ezartzen dituen ekainaren 7ko 1/2024 Legearen ezarpenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautu eta arte-irakaskuntza profesionalen antolaketa eta baliokidetasunak ezartzen dituen ekainaren 7ko 1/2024 Legearen ezarpenari buruzkoa, 2025eko urriaren 17ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25-PES-00359 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Ekainaren 7ko 1/2024 Legearen azken xedapenetako bederatzigarrenaren arabera, Gobernuak, autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren, legea ezartzeko egutegia onetsiko du lege hura indarrean jarri eta, gehienez, urtebetera.

Uztailaren 8ko 611/2025 Errege Dekretuak zehazten du ekainaren 7ko 1/2024 Legea ezartzeko egutegia. Ondoren, errege-dekretu horretan xehatzen da Hezkuntza Ministerioak aurreikusten duen estatu mailako oinarritzko araudia onesteko egutegia:

	2025						
	JUN	JUL	AG	SEP	OCT	NOV	DIC
Real Decreto por el que se establece el calendario de implantación de la LEA							
Real decreto por el que se adapta la composición y funciones del Consejo Superior de Enseñanzas artísticas							
Real Decreto para reglamentar el procedimiento de equivalencia de estudios de danza previos a la LOGSE							

	2026											
	ENE	FEB	MAR	ABR	MAY	JUN	JUL	AG	SEP	OCT	NOV	DIC
Reales decretos por los que se modifican los primeros títulos de enseñanzas artísticas profesionales, en los que constará los estándares de competencias profesionales que correspondan				Real Decreto								
Real Decreto que establece el régimen, organización y funcionamiento del registro Estatal de EEAA									Real Decreto			
Reales decretos de estructura y organización de las enseñanzas de grado y máster, con procedimientos de calidad.									Real Decreto			
Real Decreto por el que se determine los requisitos para la designación de profesorado emérito									Real Decreto			
Orden por la que se establecen las condiciones del plan de estudios del Máster de especialización en investigación y didáctica										Orden		

	2027										
	ENE	FEB	MAR	ABR	MAY	JUN	JUL	AG	SEP	OCT	NOV
Real Decreto por el que se regulan los requisitos y procedimiento para la expedición de títulos de grado y máster en EEAASS			Real Decreto								
Normativa básica de ordenación de los nuevos cuerpos docentes					Real Decreto						
Real Decreto que establece las características del programa de formación en competencias para la función directiva									Real Decreto		
Real Decreto que regule las condiciones para la creación o autorización de centros, con requisitos mínimos para su funcionamiento									Real Decreto		
Real Decreto por el que se aprueba el Estatuto Básico del Estudiante									Real Decreto		
Reales decretos por los que se publica el contenido básico de los planes de estudios de los títulos de grado en EEAASS									Real Decreto		

Nafarroako graduiko ikasketen antolamenduari dagokionez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak eta goi mailako arte-ikasketak ematen dituzten zentroek era progresiboan egokitzen eta ezartzen ahalko dituzte gradu tituluen ikasketen planak, araudi horretan ezartzen diren prozeduren arabera. Edonola ere, graduiko tituluetak ikasketen plan guztiak antolamendu berrira egokituta egonen dira, araudi hori indarrean jarri eta, gehiezin, hamar urteko epean.

Horrenbestez, 1/2024 Legea, ekainaren 7koa, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautzen dituen eta arte-irakaskuntza profesionalen antolaketa eta baliokidetasunak finkatzen dituen, gaur egun indarrean dagoen arren, hura garatzen duten errege-dekretuen eta ministro-aginduen argitalpenak ahalbideratuko dio Hezkuntza Departamentuari haien antolamendua eta araudia irakaskuntza horien tesuinguru berrira egokitzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00360. Galdera, Cintruénigoko La Paz BHla handitzeko obren hasierari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Cintruénigoko La Paz BHla handitzeko obren hasierari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 17ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00360 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuak konpromisoa du Nafarroako ikastetxe publiko guztietako espazioak egokitzeko, ikastetxe bakoitzeko matrikulazioaren araberako premiak kontuan hartuta. Kasurako, Cintruénigon, Hezkuntza Departamentuak, legegintzaldia

hasteko, La Paz DBHla eta Otero de Navascués Ikastetxe Publikoa handitzeko lanen espedienteak izapidetu zituen (berriki amaitu dira La Pazeko lanak).

Hain zuzen ere, joan den otsailean, kontseilariak publikoki adierazi zuen ikastetxea handitu nahi zuela Lanbide Heziketako zikloak ezartzeko, eta, horretarako, udalari laguntza eskatu zion institutuaren ondoko lursailak erosteko.

Beraz, publikoa da Hezkuntza Departamentuak herriko ikastetxeak zabaltzeko duen konpromisoa. Hala ere, sei hilabete igaro dira ikastetxera bisita egin zenetik, eta udalak ez dio departamentu honi inolako aurrerapenik jakinarazi lursail posibleen lagapenari dagokionez. Udalari gogorarazten zaio lagapen hori kargarik gabe egin behar dela, departamentu honek zabaltze-proiektuaren lizitazio-lanak lehenbailehen hasi ahal izan ditzan.

Iruñean, 2025ko azaroaren 5ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00361. Galdera, Letizia Ortiz Lanbide Heziketako 2025-2026 ikasturteari hasiera ofiziala emateko ekitaldian parte hartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak Letizia Ortiz Lanbide Heziketako 2025-2026 ikasturteari hasiera ofiziala emateko ekitaldian parte hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 17ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25-PES-00361 galdera idatzari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako hau ematen du:

Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kiroletako Ministerioak Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren kabineteari jakinarazi zion ministerioak berak eta Errege Etxeak erabaki zutela Nafarroara etortzea, Nafarroako Foru Komunitateko lanbide-heziketako ikastetxe batean egiteko Espainiako LHko ikasturtearen hasiera-ekitaldia,

urtero leku desberdinean egiten baita ikastetxeek egiten duten lana goratzearren.

Espainiako Konstituzioaren atariko tituluaren 1. artikulua 3. apartatuak honela dio: "Espainiako estatuaren forma politikoa monarkia parlamentarioa da". Nafarroako Gobernuak errespetatu egiten du Espainiako Konstituzioa; eta legeak, baita Lege Nagusia ere, betetzera eta betearaztera behartuta dago.

Urriaren 3an, Irunberriko Ikastetxe Integratu Politeknikoan egin zen Lanbide Heziketako 2025/2026 ikasturtearen hasierako ekitaldi ofiziala, eta bertan izan ziren Letizia erregina; Pilar Alegría, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kiroletako ministroa; eta María Chivite, Nafarroako Gobernuko lehendakaria. Berta-ra joanda, ordezkaturak zeuden erakundeek aitortza

egin zioten Nafarroako erreferentziazko zentro horretako hezkuntza-komunitateak egindako lanari, bai eta Hezkuntza Departamentuak XXI. mendeko ziklo eta ikasketa propioen prestakuntza-beharretara egokitutako lanbide-heziketako azpiegitura berriak berritzeko eta eraikitzeko egindako ahaleginari ere; eta gainera, Nafarroako Foru Komunitatea zoriondu nahi izan zuten, Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikotik eratorritako LH Dual berria ezarri eta hedatzeko orduan Espainian izan duen lidergoagatik.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00362. Galdera, Migratzaileentzako Kulturarteko Bitartekari tza Komunitarioko Zerbitzua izeneko zerbitzu-kontratuaren lizitazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Migratzaileentzako Kulturarteko Bitartekari tza Komunitarioko Zerbitzua izeneko zerbitzu-kontratuaren lizitazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 17ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak, 11-25/PES-00362 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Bada, Nafarroako

Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak hau jakinarazten du:

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusian lizitazioen baldintza-agiriak eta klausulak berrikusten ari dira, zerbitzurako aurreikusitako baldintza ekonomikoak hobetzeko, prozesuan enpresa gehiagok parte hartzeko eta zerbitzua behar bezala emanen dela bermatzeko.

Halaber, lizitazioa 2026an egitea aurreikusten da, dagoeneko egin baita lizitazioaren aitzin iragarria Nafarroako Gobernuaren Kontratazio Atarian.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00363. Galdera, Sendaviva parkeari buruzko kanpo-auditoretzari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak Sendaviva parkeari buruzko kanpo-auditoretzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 17ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 11-25/PES-00363 galdera idatzia egin du 2023an lizitatutako ingeniari-tza zibileko lanen kontratazioaren adjudikazioaren gaineko auditoretzaren

eta parkearen tematizazioaren inguruan. Bada, Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Turismo-ko kontseilaria hau jakinarazten du:

Auditoretza hori egiteko enkargu-gutuna 2025eko urriaren 7an izenpetu zen. PFK Attest Servicios Profesionales SLk egingen du auditoretza, eta horretarako aurrekontua 20.000 eurokoa da (BEZik gabe). Aholku-enpresak oraindik ez du adierazi txostena entregatzeko data aurreikusia, auditoretza osatzeko dokumentazioa aztertzen ari baita.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Kultura, Kirol eta Turismo-ko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00364. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Israelekin dituen proiektuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak Nafarroako Unibertsitate Publikoak Israelekin dituen proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 17ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak PES-11-25/00364 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Israelekin dauzkan proiektuez. Bada, Nafarroako Gobernuako

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak hau jakinarazten du:

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak informazio hau du eskura:

2024ko maiatzean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) komunikatu ofizial baten bidez jakinarazi zuen bere gobernu-kontseiluak aho batez onetsi zuela konpromiso hau: harremanik ez izatea Palestinan egindako "gizateriaren aurkako krimenak" berariaz arbuiatzen ez dituzten israeldar unibertsitateekin.

Akordio horrek berekin dakar palestinar herriaren giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbidea bortxatzen dituzten erakundeekin harreman akademikorik ez izatea eta horiekin dauden harremanak berrikustea.

Zehazki, erabaki da loturarik ez ezartzea Palestinan gertatzen ari diren giza eskubideen urraketak berariaz gaitzesten ez dituzten israeldar unibertsitate eta entitateekin.

Halaber, NUPek ikasle eta irakasle errefuxiatuendako babes-programa indartzeko konpromisoa hartu zuen, bere eskumenen barruan, bereziki kontuan hartuta palestinar deserriratuak. Halaber, Palestinako unibertsitate-erakundeekin lankidetzahitzarmen gehiago egiteko aukera jarri zen mahai gainean.

Gaur egun, webgunearen arabera, NUPek ez dauka mugikortasun-hitzarmenik batere ezein israeldar unibertsitateekin, eta ez du parte hartzen herrialde horri loturiko ezein lankidetzasare, -programa edo -proiektutan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 11n

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00365. Galdera, Catella Group-ek kudeatutako alokairuko etxebizitza babestuetan alokatutako 168 familien jarraitutasuna bermatzeko arazoei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Catella Group-ek kudeatutako alokairuko etxebizitza babestuetan alokatutako 168 familien jarraitutasuna bermatzeko arazoei buruzkoa, 2025eko urriaren 17ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 11-25/PES-00365 eskariari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuako Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak hau jakinarazten du:

Zertan dira Catella Group enpresarekiko kontaktuak?

CATELLA WE 06 SPAIN SLUK Sarrigurengo bi sustapen hauek kudeatzen ditu:

31/1-0046/03 espediente, 60 etxebizitza.

- Helbidea: Badostaingo Portalea plaza 9, 11, 13, 15 eta 17.

- Behin betiko kalifikazioaren data: 2005/08/03.

- Babesaren amaiera-data: 2025/08/03.

31/1-0069/03 espediente, 108 etxebizitza.

- Helbidea: Badostaingo Portalea plaza 1, 3, 5 eta 7. Ibia plaza 2–10 (bikoitiak). Elizmendi kalea 27 eta 29.

- Behin betiko kalifikazioaren data: 2006/03/06.

- Babesaren amaiera-data: 2026/03/06.

Departamentua harremanetan izan da CATELLA WE 06 SPAIN SLUrekin 2025ean zehar, Sarrigurengo sustapenen babesaren amaitzearen honetan, dauzkan aukeren gaineko informazioa emateko. Departamentuak behin eta berriz argi adierazi du etxebizitzaren babes-araubidea luzatu nahi duela, eta, halaber, errentarien egoera bermatu eta babestu nahi duela.

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik enpresa horrekin akordio batera iristeko, hark 168 familiek beren etxebizitzetan jarraitzea bermatuz?

Nafarroako Gobernuak egiten ahal duen bakarra da legez ezarritako mekanismoak aplikatzea, etxebizitzaren babes bermatu eta mantentzeko, eta errentariak laguntzak jasotzen jarraitzeko; horixe defendatu du, eta horixe adierazi dio enpresari beti.

Zer formula edo irtenbide aztertzen ari dira?

Babes-araubidea amaitzearen honetan, CATELLA WE 06 SPAIN SLUri proposatutako aukera eta soluzio guztien funtsa izan da aipatutako araubidea luzatzea, errentariak beren etxeetan jarraitzea bermatzea eta horiei dirulaguntzak ematea.

Hala, etxebizitzaren arloko jarduketaren babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuak aukera ematen du errentariei dirulaguntzak emateko, baldin eta etxebizitzak baldintza berdinetan errentatzera bideratzen badira. Kasurako, hona bigarren xedapen iragankorrak dioena:

“Bigarren xedapen iragankorra. Kalifikazio epea bukatutakoan errentamendurakoak izaten segitzen duten etxebizitzetako maizterrentzako dirulaguntza.

Etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak dirulaguntzak ematen ahalko dizkie errentamendurakoak izaten segitzen duten etxebizitzetako maizterrei, kalifikazio-epea eta ezarritako babes-araubidearen indarraldia bukatu denean, honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Sustatzaileak konpromisoa hartzen badu etxebizitza babestuetarako ezarritako baldintzetan etxebizitzak errentamendurako erabiltzeko, kasuko kontratu-urtealdia amaitu arte. Epe hori sustatzailearen eskariz luzatu ahalko da, errentamendu-urtealdi osoetarako, gehieneko mugarik gabe.

b) Sustatzaileak egina izan dadila xedapen honetan ezarritakora biltzeko eskaera:

– Edonoz, kalifikazio-epea amaitzen denetik zortzi hilabete igaro arte, eta amaiera horretatik aurrera izanen du eragina.

– Edo hurrengo urtealdi osoak amaitu baino hilabete lehenago arte”.

Aukeretako bat da kontratu berriak izenpetzea egungo errentariekin, dirulaguntzak jasotzen segitu dezaten; izan ere, foru-araudiak araubide berezi bat barne hartzen du, jada maizter diren pertsonentzat. Hala, 10/2010 Foru Legeak, maiatzaren 10ekoak, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzkoak, hau xedatzen du:

“Hogeita batgarren xedapen gehigarria Kalifikazio epea bukatuta daukaten etxebizitza babestuetako maizterrentzako dirulaguntza”.

Errentamendurakoak diren babes ofizialeko etxebizitzaren sustapen batean babes-araubidea bukatu baldin bada, lehenik maizter ziren pertsonekin errentamendu-kontratu berriak sinatzeak horiei modua emanen die errentamendurako babes ofizialeko etxebizitzetarako aurreikusitako dirulaguntzak izaten segitzeko, betekizun, baldintza eta portzentaje berekin, baldin eta honako bi baldintza hauek ere betetzen badira:

– Etxebizitzaren hileko errentaren prezioa ez dadila handiagoa izan ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 68. artikuluko C letran aurreikusitakoa baino.

– Etxebizitzak Tuteran kokatuta egotea, edo Nafarroako Lurralde Estrategiaren 10. esparruko 10.4 azpiesparruaren —Iruñeko metropolialdearen— aplikazio-eremuan”.

Bestalde, babes-araubidea bukatu zaien eta tentsiopeko etxebizitza-merkatuko eremu batean dauden etxebizitzetan, kontuan hartu behar da 10/2010 Foru Legearen hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzko ekainaren 30 9/2025 Foru Legearen bidez gehitu zena. Hauxe dio:

“Hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. Tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde batean kokatuta dauden etxebizitza babestu baina babes-araubidea amaituta daukatenetako errenta.

Etxebizitza libreak errentan emateko kontratuetan, baldin etxebizitza horiek lehenago errentamendu-araubidezko edo errentamendu ordainerrazeko araubidezko babes ofizialeko etxebizitzak baziren eta babes-araubidea amaituta izan eta tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde batean kokatuta badaude, lehenbiziko kontratu berriaren hasieran itundutako errentak muga bakartzat izanen du erreferentzia-prezioen indizeen sistema, errentan emandako etxebizitzaren nahiz kokatuta dagoen eraikinaren baldintzen eta ezaugarrien arabera”.

Zer aurreikuspen darabil Nafarroako Gobernuak horri buruz?

CATELLAk eskabide bat aurkeztu zuen 2025eko urriaren 27an, hauxe eskatzeko: 31/1-0046/03 espedienteari dagokionez (60 etxebizitza), eta irailaren 18ko 61/2023 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrari jarraikiz, 60 etxebizitzetako 28ren babes-araubidea urtebetez luzatzea. Alegia, laguntzak jasotzen dituzten maizterren etxebizitzetarako soilik eskatu du luzapena.

Gainerako etxebizitzak (32), etxebizitza libre izatera igaroko dira. Hala ere, enpresak, Departamentuari adierazi diotenaren arabera, etxebizitza horietako maizterren kontratuak luzatu nahi ditu, legeak ezarritako dirulaguntzak jasotzen segi ahal izan dezaten.

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako Departamentuak eskatutako urtebeteko luza-pena emanen du eta laguntzen onuradun diren errentariei dirulaguntza ematen segituko du. Gainera, enpresa honen aitzinean bezala beste

enpresa eta sustatzaile batzuen aitzinean ere defendatuko du babes-araubidearen jarraitutasuna, errentariei babesteko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00366. Galdera, Nafarroan goi-tentsioko sarerik ez duten eremuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak Nafarroan goi-tentsioko sarerik ez duten eremuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 17ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Elizalde Urmeneta 11-25/PES-00366 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, tentsio handiko sarerik gabeko nafar zonez. Bada, Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak hau jakinarazten du:

Departamentuaren iritzian, elektrizitate eskariari dagokionez, 2030era begirako plangintza berriak jarduketa hauek barne hartu beharko lituzke:

– Bigarren transformadorea Estellerriko 220 kV-eko azpiestazioan.

Jarduketa honi esker, Cordovillako 220/66 kV-eko azpiestazioa eta Tafallako 220/66 kV-eko azpiestazioa “deskargatzen” ahalko dira.

– Tafalla-Zangozako 220 kV-eko itxitura berria.

Jarduketa horri esker, 200 kV-eko sarea sartzen ahalko da inguruan.

– La Sernako 400 kV-eko transformazio-azpiestazio elektrikoa handitzea.

Jarduketa horri esker, inbertsio-proiektu estrategiko bat edo batzuk abiaraziko dira.

– Orkoiengo 220 kV-eko transformazio-azpiestazio elektrikoa handitzea.

Jarduketa horri esker, inbertsio-proiektu estrategiko bat edo batzuk abiaraziko dira.

– Erriberriko 220 kV-eko transformazio-azpiestazio elektrikoa handitzea.

Jarduketa horri esker, inbertsio-proiektu estrategiko bat edo batzuk abiaraziko dira.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga jauna

11-25/PES-00367. Galdera, Miranda Argako ikastetxe publiko berriaren proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Miranda Argako ikastetxe publiko berriaren proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 17ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25-PES.00367 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuak, Miranda Argako San Benito HLHIPko matrikula kopuruaren bilakaera ikusita, leku arazoak konpondu behar zituen zentro berri bat eraikitzeke aurreikuspena egin zuen; izan ere, gaur egungo eraikinak ez zuen aukerarik eskaintzen handitze-lan nabarmenik egiteko, eraikin artean kokatuta egonik, udalerriko hirigune historikoan.

Departamentuak berak matrikula kopuruaren bilakaerari buruzko txosten bat egin zuen, 8 unitateko matrikula-igoera zenbatesten zuena 21-22 eta 29-30 ikasturteetan. Gaur egun ikastetxea dagoen eraikinak ez zuen matrikula kopuru horretarako indarrean dagoen araudiak eskatzen duen gutxienezko espaziorik, eta horregatik, Departamentuak Miranda Argako Udalari eskatu zion, 2022ko urriaren 26an, eskueran jar zezala 2.500 m²-ko lurzati bat, kargarik gabea.

2023ko otsailaren 1ean, Miranda Argako Udalak Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzuari eskaera horren erantzuna helarazi zion, hiru aukera emanda.

– 1. aukera: gaur egungo ikastetxea egokitzea, eta beheko aldeko lokalak erabiltzea (gaur egun udalaren biltegi eta garaje modura erabiltzen dira), % 100ean udalaren jabetzakoak direnak.

Udalaren ustez, aukera hori da zentzuzkoena; izan ere, ikastetxeak kokapen berean jarraituko luke, herriaren erdigunean; ez litzateke beharrezkoa izan baimena jasotzea, erosketak edo hiru-

garrenei desjabetzeak egitea, jabetza udalarena baita; eta, gainera, udal-eraikin bat gehiago izatearen arazoa saihestuko litzateke, eta horrek eraginen litzuzkeen mantentze-gastuak aurreztuko litzateke.

Udalari kostu ekonomikoa txikiagoa ekarriko lioke, eta izapide-aldia laburragoa izanen litzateke, hain zuzen ere, etxabeak erabiltzeko prest egonen liratekeelako beste bi aukerak baino askoz ere aitzinago, horiek desjabetzea, hirigintza-plangintza aldatzea eta abar behar dutelako.

– 2. aukera: ikastetxea ondoko lurzatiak (jabetza partikularrekoak) baliatuz handitzea (7. poligonoa, 308. eta 309. lurzatiak).

– 3. aukera: ikastetxe berri bat eraikitzea herri-gunearen ertzean dagoen lurzatian; lurzati hori birpartzelatuta dago, familia bakarreko etxebizitzak (jabetza partikularrekoak) eraikitzeko.

2023ko ekainaren 13an erantzun zion Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzuak Udalaren proposamen bakoitzari:

1. 1. aukera: Egungo ikastetxeak 563 m² erabilgarri ditu, gutxi gorabehera; azalera hori oso urrun dago zenbatesten den 1.000 m² erabilgarri inguruko azalera; ez dakigu zenbateko azalera eta nolako ezaugarriak dituzten Udalaren lokalek, baina, kasurik onenean, 275 m² erabilgarri edukitzera iritsiko litzateke eta, beraz, oraindik ere azalera faltako litzateke ikastetxea behar dituen espazio guztiez hornitzeko. Gainera, eskailera- eta igogailu-nukleo berri bat beharko litzateke solairu hori egungo ikastetxearekin komunikatzeko, baina arraz zaila izanen da obra hori eta irakaskuntza-jarduerak bateratzea.

Azaldutakoaren ondorioz, lehen aukerak ez die erantzuten ikastetxearen beharrei.

2. 2. aukera: 308. lurzatiak 187 m²-ko katastro-azalera du, eta 309. lurzatiak 314 m²-koa, hau da, guztira 501 m²-ko azalera oinplanoan; hori, lehen aukeran azaldutako beharrei eusten badiegu, a priori nahikoa litzatekeela pentsa liteke.

Eraikuntzarako, kontuan izan behar da:

– 308. eta 309. lurzatietan egin beharreko eraikuntzak gutxienez 3 metroko tartea utzi beharko luke lurzati mugakideetatik. Zabaleran, orubearen punturik okerrenak 12 metro inguru ditu; ikasleek erabiltzen dituzten espazio guztiek argiztapen

eta aireztapen naturala edukitzea nahi badugu, zabalera erabilgarria 6 metrora murriztuko litzateke, eta zabalera hori ez litzateke nahikoa izanen ikasgelen lerro bat eta dagokion pasilloa planteatzeko.

Muga horiek kontuan hartuta, oinplanoan lurzati azalera erabilgarria biziro murriztuta geratuko litzateke, 186 m² ingurukoa izateraino, eta oso forma irregularra edukiko luke aprobetxamendu egokiena izateko.

– Egin beharreko eraikinak irisgarria izan behar du. Gaur egungo ikastetxea dagoen 311. lurzatiaren eta 308. eta 309. lurzatiaren artean dagoen desnibela dela eta, haien arteko lotune-aukera bakarra egungo ikastetxearen lehen solairuan egonen litzateke; beraz, egungo eskailera-nukleoa birkatu beharko litzateke, igogailu bat jarri eta eraikin berriaren beheko solairua oraingo lehen solairua-

ren kota berean eraiki. Horrenbestez, solairu hori erdi lurperatuta geratuko litzateke. Kota zehatzak egiazatu beharko lirateke solairu horretako leihoak nola geratuko liratekeen ikusteko.

– Egungo ikastetxearen funtsezko handitzea. Handitzeko behar den azalera kontuan hartuta, funtsezko jarduera izanen litzateke, eta beraz, eraikuntza-araudi osora egokitu beharko litzateke egungo eraikina: ETK, jarduera sailkatuak, EITE... Horietara egokitzeko obrak, ezin dira osatu udan bakarrik, ezta ikasleak bertan direla egin ere.

Oharpen horiek kontuan hartuta, ez da bideragarri ikusten 2. aukera egikaritzea.

3. 3. aukera: ikastetxe berri bat eraikitzea herri-gunearen ertzean dagoen lurzatiaren; lurzati hori birpartzelatuta dago, familia bakarreko etxebizitzak (jabetza partikularrekoak) eraikitzeko.



Udalak 3. aukera gisa proposatu duena 2.950 m² inguruko azalera duen birpartzelatutako lurzati bat da, alegia, eskatutakoa baino askoz azalera handiagoa duena; beraz, ez legoke arazorik bertan beste ikastetxe bat egiteko.



Ez dakigu zer zerbitzu dauden lurzati ondoan, baina pentsatzen dugu zentro berri batek behar dituenak izanen direla; beraz, aukera hori izanen litzateke ikastetxearen beharrei erantzuten dien bakarra, eta irakaskuntza-jarduerari eragin gabe egikaritzen ahal dena.

Horregatik guztiagatik, Miranda Argako Udalak planteatutako hiru aukeretatik, Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzuak 3. aukera bakarrik ikusten du bideragarri: azaldutako lurzatian ikastetxe berri bat eraikitzea.

2023ko uztailaren 22an, Miranda Argako Udalak Hezkuntza Azpiegituren Zerbitzuari proposatu zion Miranda Argako 3. poligonoko (Tirujon kalea) 6 lurzati azter zitzala, guztira 2.278,87 m²-ko azalera dutenak, eraikin hori eraikitzeko.

2023ko azaroaren 13an, Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzuak ofizio bat bidali zion Udalari, ebatziz lursail horiek “ez direla egokiak ikastetxe horretan aurreikusitako programari erantzunen dion diseinu bat lortzeko, funtzionala izan dena eta aplikatu beharreko araudi guztia bete ahal duena”, funtsean, lursailen geometriari, topografia desegokiari (3 eta 5 metro arteko desnibelak) eta ikastetxe berrirako sarbideei dagokienez.

Ondoren, hainbat bileratan erabaki zen lurzatiak egokiak izaten ahal zirela, Udalak egokitzapen batzuk eginez gero.

Hala ere, ikastetxe horren ikasle-aurreikuspenak gorabehera nabarmenak izan ditu azken ikasturteetan. Horrela, 2022ko txostenean 96 ikasle aurreikusten ziren 2024-2025 ikasturterako, eta 63 izan ziren ikasturte horretan.

Hori dela eta, matrikula-bilakaerari buruzko txosten berri bat eskatu zen, 2024ko irailean landu zena; eta bertan, nabarmen murrizten zen ikasle eta talde kopurua hurrengo ikasturteetarako. Gauzak horrela, 25-26 ikasturtean, 53 ikasle ari dira, eta aurreikusten da gutxitzen joanen direla.

Gauzak horrela, Hezkuntza Departamentuak ez du aurreikusten ikastetxe berria berehala eraikitzea, nahiz eta ez dion uko egiten aukera horri, matrikularen datuek justifikatuko balute 3 milioi euro inguruko kostua izan den eraikin bat eraikitzea.

Iruñean, 2025ko azaroaren 5ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00368. Galdera, Arraizko saihesbideari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Arraizko saihesbideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-25/PES-00368 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Arraizko saihesbidea eraikitzekeko proiektuari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak hau jakinarazten du:

Zein izapide egin dira orain arte Arraizko saihsbidearen proiektuari dagokionez eta zertan da espediente gaur egun?

Trazatu-proiektuaren idazketarako kontratu zen Proyectos de Obra Civil y Auditorías de Seguridad Viaria (PAV) enpresa, eta hiru hilabeteko exekuzio epea eman zitzaion.

Proiektua idazteko, bilerak egin dira udalarekin eta kontzejuarekin.

Azaroaren 10ean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean (224. zk.) argitaratu zen (<https://bon.nava.rra.es/eu/iragarkia/-/texto/2025/224/10>) NA-4230 errepidean Arraitzen saihsbidea egiteko trazatu-proiektuaren behin-behineko onespina, proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen desjabetze-espedienteari hasiera ematea eta proiektua hilabetez jendaurrean jartzea agintzen zuena, ukitutako ondasun eta eskubideen ondorioetarako eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren ondorioetarako.

Zer izapide daude egiteke eta zer epe aurreikusten du departamentuak Arraizko saihsbidea eraikitzekeko proiektua amaitzeko?

Jendaurreko informazioaren izapidea amaitu, eta alegazioak aztertuta, eraikuntza-proiektua idatziko da.

Eraikuntza-proiektua onetsi ondoren, zer aurreikuspen darabil departamentuak proiektua gauzatzeko?

Proiektua behin betiko onetsita, obraren exekuzioa aurrekontu-baliabideen mende egonen da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00369. Galdera, Euskal Udalekuak entitateak antolatutako udalekuetan Nafarroako Gobernuak aire zabaleko gazteentzako jardueri buruz onetsitako araudia betetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Emilio Jiménez Román jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Euskal Udalekuak entitateak antolatutako udalekuetan Nafarroako Gobernuak aire zabaleko gazteentzako jardueri buruz onetsitako araudia betetzeari buruzkoa, 2025eko urriaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Talde Mistoari atxikitako foru-parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak 11-25/PES-00369 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Bada, Nafarroako Gobernuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak hau jakinarazten du:

107/2005 Foru Dekretuak, abuztuaren 22koak, Nafarroako Foru Komunitatean aire zabalean egiten diren gazteentzako jarduerak arautzen dituenak, 1. artikuluan honako hau xedatzen du:

“1. artikulua. Aplikazio-eremua.

Foru dekretu honetan biltzen diren arauen bidez erregulatuko dira Nafarroako Foru Komunitateko lurraldearen barruan gazteek aire zabalean egiten dituzten jarduerak. Horretatik kanpo daude ofizialki onartutako ikastetxeek hezkuntza programaren edukietan oinarrituta, eskolaldiaren barruan eta bertako irakasleen laguntzaz egiten dituzten jarduerak”.

Halaber, foru dekretu horren 2. artikulua hone-larik definitzen du gazteek aire zabalean egiten dituzten jarduerak zer diren: “(...) izanen dira hogeita hamar urtetik beherakoei zuzenduriko noizbehinkako ekintza irekiak, hamar parte-hartzaile edo gehiago dituztenak eta, elkarren segidako hiru gau gutxienez egiten dituztenak instalazio mugikorretan; hala nola, kanpaldiak, kanpaldien itxura hartzen duten auzolandegiak, ibilaldiak, zeharkaldiak eta antzekoak”.

Euskal Udalekuen webgunean (<https://udalekuak.eus/hasiera-2/>) argitaratutako informazioaren arabera, Abaigar, Bernedo eta Goñi herrietan kokatutako hainbat eraikinetan egiten dira kanpaldiak.

Eskura dagoen informazioaren arabera, kanpaldi horiek instalazio finko edo iraunkorretan egiten dira, zehazki, lehen aipatutako herrietan kokatuta dauden eraikinetan, eta ez kanpalekuetan edo bestelako ezein instalazio mugikorretan.

Beraz, Euskal Udalekuek antolatutako udalekuek ez dituzte aire zabaleko jardueratzat hartuak izateko baldintzak betetzen eta, ondorioz, ez daude 107/2005 Foru Dekretua betetzera behartuta.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00370. Galdera, jakiteko ea Euskal Udalekuak entitateak antolatutako udalekuei buruzko salaketen berri eman ote zioten Eusko Jaurlaritzak edo Ertzaintzak departamentuari

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Emilio Jiménez Román jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea Euskal Udalekuak entitateak antolatutako udalekuei buruzko salaketen berri eman ote zioten Eusko Jaurlaritzak edo Ertzaintzak departamentuari, 2025eko urriaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Talde Mistoari atxikitako foru-parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak 11-25/PES-00370 galdera egin zuen hitzez. Bada, Barneko, Funtzio

Publikoko eta Justiziako kontseilariak hau jakinarazten du:

Ikerketa Kriminaleko arloburuari egindako kontsultatik ondorioztatzen da Foruzaingoaren datu-baseak kontsultatu direla, eta, Sarrea Euskal Udaleku Elkarteak antolatzen dituen udalekuei dagokienez, ez dela eskuratu salaketa, kexa edo zerbitzu-parteen informazioei buruzko daturik, ez behintzat elkarte horrek Bernedon (Araba) antolatutako udalekuetan izandako gertakariei buruzko informazioak argitaratu baino lehenagokorik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 213.6 artikuluan xedaturikoa betetz.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: María Amparo López Antelo

11-25/PES-00371. Galdera, Nafarroan tren-azpiegiturak koordinatzeko eta bultzatzeko lantaldea sortzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Nafarroan tren-azpiegiturak koordinatzeko eta bultzatzeko lantaldea sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-25/PES-00371 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Nafarroan tren-azpiegiturak

koordinatu eta bultzatzeko lan-batzordeari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilariak hau jakinarazten du:

1. Zer eskumen, eginkizun eta eskudantzia eman zaizkio berriaz, Nafarroan tren-azpiegiturak koordinatu eta bultzatzeko lan-batzordeari?

Ez zaio eman, ez eskumenik, ez eskudantziarik. Tren-azpiegiturak bultzatzeko lan-batzorde bat da. Eginkizun du bi lan-lerroren bidez prestazio handiko trenea eta azpiegitura konbentzionala bultzatzea, distantzia ertain eta laburreko garraioa eta salgaien tren bidezko garraioaren sustapena barne.

2. Zein da batzorderako ezarri den barne-funtzionamenduko erregelamendua edo sistema?

Elkarrizketa foro bat da, Nafarroarentzat oso garrantzitsua den azpiegitura bati buruzkoa. Gobernantza-egituraren arabera da barne-fun-

tzionamendua: zuzendaritza-batzordea, batzorde betearazlea eta gaikako bi lantalde; Prestazio handiko trenen azpiegituren eta tren konbentzionalaren azpiegituren lantaldea eta Logistikako eta salgaien tren-garraioaren lantaldea.

3. Zein izanen da lan-batzordearen, zuzendaritza-batzordearen, batzorde betearazlearen eta eratzen diren lantalde teknikoen osaera zehatza?

– Zuzendaritza-batzordea: gidalerroak zehaztuko ditu eta proposamenak onetsiko ditu.

- Nafarroako Gobernuako Garraioen Zuzendaritza Nagusiaren ordezkariak.

- Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren ordezkariak.

- Garraioetako eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioaren ordezkariak

- Sindikatuen ordezkariak.

– Batzorde betearazlea: lantaldeek landutako proposamenak aztertu, eta zuzendaritza-batzordeari igorriko dizkio.

- Nafarroako Gobernuako Garraioen Zuzendaritza Nagusiaren ordezkariak.

- Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren ordezkariak.

- Garraioetako eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioaren ordezkariak.

- Sindikatuen ordezkariak.

– Prestazio handiko trenen azpiegituren eta tren konbentzionalaren azpiegituren lantaldea.

- Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusia.

- Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioko idazkari nagusia.

- Garraioen Kudeaketa eta Antolamenduaren eta Mugikortasunaren Zerbitzuko zuzendaria.

- Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioko proiektu-arduraduna.

- Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoaren nafar ordezkariak dekanoa.

Lantalde horrek bi eginkizun bloke nagusi izanen ditu:

- ♣ Prestazio handiko trenaren azpiegituren obren eta proiektuen bilakaeraren jarraipena egitea:

- Egungo egoera ezagutzea.

- Hiru urte barrurako aurreikuspenak.

- ♣ Distantzia ertain eta laburreko tren-azpiegituraren jarraipena egitea:

- Proposamenak. Egungo egoera.

- Erabiltzaileak.

- Maiztasun handiagoa eta tren berriak behar dira.

- Ministerioaren politika.

- Logistikako eta salgaien tren-garraioaren lantaldea.

- Nafarroako Gobernuako Garraioen Zuzendaritza Nagusiaren ordezkariak.

- Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren ordezkariak.

- Nafarroako Garraioko Enpresaburuen Elkartearen ordezkaria.

- Nafarroako terminal intermodalaren ordezkaria.

- Enpresak.

- Lantalde horren eginkizunak esparru hauetan ardaiztuko dira:

- Nafarroako terminal intermodala, Noainen. Inbertsioa eta potentzialitatea.

- Bazterguneak. Trenbidearen gaitasuna handitzeko etorkizuneko premiak.

- Trenbide-hobekuntza.

- Tren-autobide.

- Ikastaroak.

- Enpresa bultzatzaileak. (Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa - Merkataritza Ganbera).

- Lan foro bat sortzea salgaien tren-garraioa sustatzeko interesa duten enpresekin. Ikuskapen fitosanitarioak jatorrian, etab.

4. Zenbatean behin bilduko dira batzordea, zuzendaritza-batzordea eta batzorde betearazlea?

- Zuzendaritza-batzordea, gutxienez urtean behin.

- Batzorde betearazle, gutxienez urtean bitan.

- Lantaldeak. Behar adina alditan.

5. Nafarroako Gobernuak zer helburu espezifiko lortu nahi ditu lan-batzorde hau sortuz?

Garraioetako eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak eta Nafarroako Gobernuak modu koordinatuan lan egitea, Nafarroan tren-azpiegiturak bultzatzeko.

Helburu zehatzak lantaldeen bileretan zehaztu-ko dira.

6. Zehaztu al da jada ibilbide-orririk edo jarduteko estrategiarik, komunikabideetan adierazi den bezala? Hala baldin bada, zeintzuk dira lerro eta epe nagusiak?

- Tren-azpiegituren jarraipena. AHTa, azpiegitura konbentzionala, nodo logistikoak.
- Salgaien tren-garraioa bultzatzea.

7. Zer baliabide tekniko, giza baliabide eta finantza-baliabide izanen ditu batzordeak bere eginkizunak betetzeko?

Batzordekide adina giza baliabide izanen ditu batzordeak. Gaur-gaurkoz, ez da baliabide ekonomikorik berriaz bideratu lan-batzordera.

8. Zer gai jorratu ziren batzordearen lehen bileran eta zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak haren lanari eta emaitzei buruz?

- Lan-batzordearen sorrera eta taldeen eraketa.
- Atlantikoko Korridorearen arduradunak korridore osoa azaldu zuen, Nafarroako zatia xeheago aipatuta.
- Tren konbentzionalaren erabileraren azterketa.
- Nafarroako terminal intermodala, Noainen.

9.- Zeintzuk izanen dira batzordearen hurrengo bileretan landuko diren gai eta proiektu zehatzak?

- Bilera estatu-idazkariarekin. AHTaren azpiegituraren aurrerapena.
- Nafarroako terminal intermodala bisitatzea (Noain). Terminalaren azpiegituraren aurrerapena.
- Tren-garraioari buruzko mintegia. Tren-intermodalitatea Nafarroan. Mintegi irekia izan zen.
- Nafar enpresen trengarritasun potentziala aztertzea.

10. Nola antolatuko da batzordearen eta Nafarroako Gobernuko organo betearazle edo erabakitzaileen arteko harremana?

Eratutako organoetan izaten da elkarrizketa.

Garraioetako eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioa da azpiegituraren organo erabakitzailea.

11. Herritarrei kontuak emateko zer mekanismo aurreikusten dira batzordearen lanari dagokionez?

Nortasun juridikorik gabeko elkarrizketa foroa da, ez duena gaitasunik erabakiak hartzeko; beraz, ez dagokio kontu ematea. Gainera, lan-organoa izaki, ez zaio aplikatzen Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea; beraz, ez du zertan kontu eman jendaurrean.

12. Batzordearen, zuzendaritza-batzordearen eta batzorde betearazlearen bileren aktak publikoak eta eskuragarriak izatea aurreikusten da?

Ez dago horri buruzko erregulaziorik.

13. Interes-gatazkak prebenitzeko zer neurri ezarriko dira, batez ere enpresa-elkarteek, enpresa pribatuek, logistika- edo tren-operadoreek parte hartzen badute?

Lan-batzordeak ez du erabakirik hartzen.

14. Aurreikusita al dauka Nafarroako Gobernuak lantalde horretan tren-arloari lotutako beste plataforma sozial edo sindikal batzuk sartzeara?

Gaian interesa duen edozein elkarteek jo dezake administrazio publikoetara, interesekotzat jotzen dituen eskaerak, txostenak eta abar aurkezteko.

15. Aurreikusita al dago beste sektore garrantzitsu batzuek, hala nola toki-entitateek, antolokunde sozialek edo sindikalek, solaskide tekniko gisa parte hartzea lantaldeetan?

Azpiegituran interes legitimoa duten toki-entitateek eta elkarteek administrazio-prozeduretan parte hartu dezakete, legeak ezartzen duenaren arabera.

16. Aurreikusten al da herritarrek, elkarteek edo udalek saio jakin batzuetan entzule gisa parte hartu edo bertaratu ahal izatea, edo batzordeari proposamenak aurkeztu ahal izatea?

Ez da horren gainean erabakirik hartu.

17. Zer lankidetzat publiko-pribatu mota ezartzea aurreikusten da Nafarroan tren-azpiegituraren lotuta dauden plataforma sozialekin?

Nafarroan tren-azpiegituraren lotuta dauden elkarte sozialek interesekotzat jotzen dituzten eskaerak, txostenak eta abar aurkezten ahal dizkiete administrazio publikoei.

18. Nafarroako Gobernuak babesten al du, Iruña-Gasteiz tarterako planteatzen ari den bezala, AHTaren trazadurari buruzko informazio-azterlana egiteaz gain, azterlan alternatibo bat egitea, egungo sarea bikoiztea ahalbidetuko lukeena eta ingurumen-inpaktu askoz txikiagoa eta kostu ekonomiko askoz txikiagoa ekarriko lukeena, hainbat plataforma sozialek eskatu duten bezala?

Garraioetako eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioaren eskumenekoa da AHTaren informazio-azterlana. Foro honek ez du asmorik batere bere eskumenekoak ez diren gaietan sartzeko. Azpiegituraren aurrerapena bultzatzea eta erabilera sustatzea ditu helburu.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 12an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00372. Galdera, Valle de Odieta egungo eta baimendutako AzLU-ei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak Valle de Odieta egungo eta baimendutako AzLU-ei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak 11-25/PES-00372 idatzizko galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Valle de Odieta abeltzian dauden azienda larriko unitateen kopuruaz eta baimena dutenen kopuruaz. Bada, Nafarroako

Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak hau jakinarazten du:

Zenbat azienda larriko unitate daude baimenduta gaur egun Caparrosoko Valle de Odieta abeltzian?

Indarreko 1383E/2021 Ebazpenak, abenduaren 27koak, Ingurumeneko zuzendari nagusiarenak, xedatzen duenaren arabera, Valle de Odieta Caparrosen daukan instalazioko kopuru baimendua hau da:

- 7.200 behi heldu
- 600 bigantxa, ernaldiko azken hilabeteetan
- 750 txahal, 40 egunez azpikoak

Azienda larriko unitatetan (AzLU) adierazita, guztira, 7.900 AzLU dira.

Zenbat AzLU daude detektatuta gaur egun Caparrosoko Valle de Odieta abeltzian?

Censo resumen							
Explotación (ES310650000126) - Bóvidos - VALLE DE ODIETA SCL							
Situación Fecha actualización							
Orden	Marca	Tipo de ganado	Cantidad	UGM	Actualización	Causa	Grabación
▶ 4798		Vaca carne (mayor de 2 años)	3	2,4	16-10-2025	Automática	Oca
4796		Bovino 12-24 meses	1554	1087,8	16-10-2025	Automática	Oca
4797		Vaca leche (mayor de 2 años)	7552	7552	16-10-2025	Automática	Oca
4795		Bovino 6-12 meses	636	254,4	16-10-2025	Automática	Oca
4794		Bovino menor de 6 meses	1343	537,2	16-10-2025	Automática	Oca

AzLUen kopuruak indarrean dagoen baimena ez dela betetzen esan nahi badu, zer neurri hartzeko asmoa du departamentuak?

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, 2025eko urriaren 8an, Valle de Odieta abeltegiaren titularrari eskatu zion abere-azienda hautemandako gehikuntza justifikatzeko. Titularraren erantzunean oinarrituta, egiaztatu egin da ez-betetzea, eta dagokion zehapen-espediterearen izapidea abian

jartzen ari dira une honetan, ingurumen-baimen integratuan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00373. Galdera, Nafarroa Marka “herri-proiektu” gisa izendatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Nafarroa Marka “herri-proiektu” gisa izendatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak PES-00373 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Horra erantzuna.

Nafarroako Gobernuaren eginbeharretarik bat da, Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, Nafarroa marka sustatzeko estrategia garatu eta gauzatzeko proiektu bati ekitea, Nafarroaren irudia sendotu eta indartzeko, ospea eta lehiakortasuna hobetzeko, munduko erregio handien artean sartzeko eta nazio nahiz nazioarte mailako eragina areagutzeko.

Posizionamendu estrategiko baten bidez jarri nahi da agerian Nafarroaren esanahia, marka bultzatzeko eta, horrela, interkonexioa eta erakarpina sortzeko; Nafarroaren irudiaren funtsezko alderdi bat mantentzen duten organismo publiko eta pribatu guztien ahaleginak koordinatu eta bideratzeko; alderdi positiboak zabaltzeko, modu egiazkoan eta errealitateari egokituta, hainbat kanalen bitartez; eta Nafarroako lurraldearen markaren irudia hobetu,

zabalduta eta sustatzeko politika instituzional aktiboak garatzeko.

Plana bultzada izatea espero da, Foru Komunitatea berrikuntzaren transferentzian oinarritutako etorkizunaren alde apustu egiten duten Europako eskualde gisa posizionatzeko.

Garaiak zitzu bizian ari dira aldatzen; beraz, gure asmoa da Nafarroa markaren proiektuak herrialde markari loturiko prozesuak aktiba ditzala, balio-iturria den aldetik. Lurralde-marka eraberritu, indartsu eta sendoa, hala kanpoan nola barnean

konfiantza eta erakargarritasuna sortzeko helburuari erantzunen diona.

Nafarroa marka irudi instituzionalaren garapen eta sustapena Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuaren eskumena da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 5ean

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria:
Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00374. Galdera, jakiteko ea arriskuan dagoen Nafarroan instalatzeko interesa erakutsi duen datu-tratamenduko proiekturen bat

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea arriskuan dagoen Nafarroan instalatzeko interesa erakutsi duen datu-tratamenduko proiekturen bat, 2025eko urriaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-25/PES-00374 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Nafarroan kokatzeko interesa adierazi zuen datu-zentro baten proiektua arriskuan egoteaz. Bada, Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak hau jakinarazten du:

Erantzun aitzin, komeni da hau argitzea: 2030erako plangintzak barnean hartzen ditu garraio-sarean egin beharreko jarduketak (linea elektrikoak, azpiestazioak, azpiestazioak handitea...).

Ez da MW-en edo GW-en “banaketa” bat, baizik eta sare elektrikoan eginen diren jarduketa zehatzen multzo bat, zeinek aukera emanen baitute garraio-sarea indartzeko, eta, ondorioz, energia berriztagarriak integratzeko, banaketa-sarea hornidura-puntuan indartzeko, horniduraren kalitatea indartzeko, eta, zenbaitetan, eskariaren beharrak asebetetzeko, dela bezeroek behar handiagoa dutelako (hots, industria deskarbonizatze prozesuak), dela negozio-eredu berriengatik (hidrogeno berdearen ekoizpena, datu-zentroak, etab.).

Espainiako gobernuak argi eta garbi adierazi du lehenetasuna emanen diola industria-proiektuen energia-eskaria asebetetzeari, beste negozio-eredu batzuen gainetik, kasurako, datu-zentroen gainetik.

Hori gorabehera, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak Nafarroako garraio-sarearen beharrak adierazi zituen ofizialki 2024ko martxoan, abenduaren 21eko TED/1375/2023 Aginduak ezartzen zuen prozesu arautuari jarraituz —Agindu horren bidez, energia elektrikoaren garraio-sarea 2030erako garatzeko proposamenak egiteko prozedura hasi zen—.

Gainera, alegazioak aurkeztuko zaizkio 2025eko urrian argitaratuko zirriborroari, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren iragarrian zehaztutako prozedurari jarraituz —Agindu horren bidez, energia elektrikoaren garraio-sarearen 2030erako plangintza-proposamenaren eta haren ingurumen-azterketa estrategikoaren entzunaldi-izapidea egiten da, eta eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiten zaie, bai funtsezko izapidearen ondorioetarako eta bai ingurumen-izapidearen ondorioetarako (2025eko urriaren 1eko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 236. zk.)—.

Departamentuaren iritzian, elektrizitate eskariari dagokionez, 2030era begirako plangintza berriak jarduketa hauek barne hartu beharko lituzke (ikus zeure talde parlamentarioaren PES-366 galderari emandako erantzuna):

– Bigarren transformadorea Estellerriko 220 kV-eko azpiestazioan.

Jarduketa honi esker, Cordovillako 220/66 kV-eko azpiestazioa eta Tafallako 220/66 kV-eko azpiestazioa “deskargatzen” ahalko dira.

– afalla-Zangozako 220 kV-eko itxitura berria.

Jarduketa horri esker, 200 kV-eko sarea sartzan ahalko da inguruan.

– La Sernako 400 kV-eko transformazio-azpiestazio elektriko handitzea.

Jarduketa horri esker, inbertsio-proiektu estrategiko bat edo batzuk abiaraziko dira.

– Orkoiengo 220 kV-eko transformazio-azpiestazio elektriko handitzea.

Jarduketa horri esker, inbertsio-proiektu estrategiko bat edo batzuk abiaraziko dira.

– Erriberriko 220 kV-eko transformazio-azpiestazio elektriko handitzea.

Jarduketa horri esker, inbertsio-proiektu estrategiko bat edo batzuk abiaraziko dira.

Banaketa-sareak asebetetzen dituen edo asebate zitzakeen proiektuei dagokionez, PEI-00449 galderan erantzun zitzaizuna gogora ekarriko dugu: Energia elektrikoaren garraio- eta banaketa-sareetarako sarbideari eta konexioari buruzko abenduaren 29ko 1183/2020 Errege Dekretuaren 23 bis artikulua arabera, elektrizitate-eskariko instalazioetan, eskatzaileak, sarerako sarbidea eta sarearekiko konexioa eskatu aitzin, kontsumo-instalazioa kokatuta dagoen autonomia-erkidegoan energia-arloko organo eskudunari ziurtagiri bat aurkeztu beharko dio, non ziurtatuko baita berme ekonomikoa gordailutu dela; zehazki, 40 euro eskatutako kilowatteko.

Ziurtagiri hori nahitaez aurkeztu beharko da, sarearen kudeatzaileak sarbide- eta konexio-prozedurak hasteko.

Hori horrela, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak zerrenda hau eman zizun. Oraingoan, zutabe bat gehiago du, egoeraren eguneraketa biltzen duena.

Espedientea	Instalazioaren izena	Udalerrria	Potentzia (MW)	Nodoa	Gaur egungo egoera
Av-NAV-1162	AZKOIENGO DATU ZENTROA	Azkoien, Faltzes, Funes, San Adrián, Azagra, Martzilla eta Alesbes	132,000	CASTEJÓN 400 kV	Sarbide- eta konexio-prozedura aribidean da
Av-NAV-1438	VALTIERRA I DATU ZENTROA	Valtierra	50,000	LA SERNAKO 66 kV-eko transformazio-azpiestazioa	Sarbide- eta konexio-prozedura aribidean da
Av-NAV-1439	VALTIERRA II DATU ZENTROA	Valtierra	50,000	LA SERNAKO 66 kV-eko transformazio-azpiestazioa	Gordailututako bermea itzuli da, banaketa-sarerako sarbiderik eta harekiko konexiorik ez izategatik
Av-NAV-1440	TUTERA I DATU ZENTROA	Tutera	50,000	TUTERAKO 66 kV-eko transformazio-azpiestazioa	Gordailututako bermea itzuli da, banaketa-sarerako sarbiderik eta harekiko konexiorik ez izategatik
Av-NAV-1442	ARGUEDASKO DATU ZENTROA	Arguedas	50,000	LA SERNAKO 66 kV-eko transformazio-azpiestazioa	Gordailututako bermea itzuli da, banaketa-sarerako sarbiderik eta harekiko konexiorik ez izategatik
Av-NAV-1441	RIBAFORADAKO DATU ZENTROA	Ribaforada	50,000	QUELKO 66 kV-eko transformazio-azpiestazioa	Gordailututako bermea itzuli da, banaketa-sarerako sarbiderik eta harekiko konexiorik ez izategatik

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00375. Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren arteko bilerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak Nafarroako Gobernuaren eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren arteko bilerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak 11-25/PES-00375 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Nafarroako Gobernuaren eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren artean izandako bilerez. Bada, Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak hau jakinarazten du:

1. 2023/01/25, Sara Aagesen. Hidrogeno berdea

- Mikel Irujo Amezaga, Nafarroako Gobernuo Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria.

- Uxue Itoiz Mariñelarena, Industriaren, Energiaren eta S4 Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusia.

- Sara Aagesen Muñoz, Energiako estatu-idazkaria.

- Manuel García Hernández, Energia-politika eta Meatzeetako zuzendari nagusia.

- José Luis Cabo Sánchez, Hidrokarburoen eta Erregai Berrien zuzendariorde nagusia.

2. 2023/12/15: Bilera bideokonferentziaz Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioarekin

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren agenda onestea, eta plan horren 2023ko mugarrak, egoera eta tresna horren kudeaketan egin beharreko hurrengo urratsak jakinarazteko.

3. 2024/01/09: Bilera Teresa Riberarekin

Lehendakariak gain, bileran izan dira Óscar Chivite Lurralde Kohesiorako kontseilaria eta Mikel Irujo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria. Estatua ordezkatu dute, Ribera presidenteordeak gain, Sara Aagesen Energiako estatu-idazkariak eta Hugo Morán Ingurumeneko estatu-idazkariak. Bi administrazioen arteko bileran izan da orobat Santos Cerdán Nafarroako diputatua.

Gai-zerrenda prentsa-oharrear jasota dago:

<https://www.navarra.es/eu/-/prentsa-oharra/chivite-lehendakariak-eta-ribera-ministroak-lehentasunezkotzat-jo-dute-nafarroako-ubidearen-bigarren-fasea-gauzatzea>

4. 2024/01/26: Energiako konferentzia sektorialaren ezohiko deialdia, bilera bideokonferentziaz, 2024ko urtarrilaren 26an, 11:00etan

Gai-zerrenda.

- Energiako konferentzia sektorialak 2022ko azaroaren 23an egindako osoko bilkuraren akta onestea.

- EBren Espainiaren presidentetzaren laburpena.

- COP28aren emaitzen berri ematea.
- Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren egoera.
- Energia elektrikoaren garraio-sarearen plangintzaren berri ematea.

- Galde-eskeak.

5. 2025/01/29:

Sara Aagesen ministroa, María Chivite lehen-dakaria, Hugo Morán Ingurumeneko estatu-idazkaria, Mikel Irujo eta Santos Cerdán Nafarroako diputatua.

Gai-zerrenda prentsa-oharrear jasota dago:

<https://www.navarra.es/eu/-/prentsa-oharra/chivite-presidentea-bat-dator-aagesen-presidente-ordearekin-nafarroak-energia-berriztagarrietan-eta-trantsizio-energetikoan-duen-lidergoaren-gakoekin>

6. 2025/02/13: Energiako konferentzia sektoriala, 2025eko otsailaren 13koa, AURREZ AURRE-KOA

a) Energiako konferentzia sektorialaren 2024ko urtarrilaren 26ko akta onestea. [ERABAKITZAIL-LEA]

b) Espainiako eta Europako energia-egoeraren berri ematea.

c) Energia-erregistro eta -estatistiken berri ematea.

d) Ibilgailu elektrikoen eta kargalekuen berri ematea: hedapena, izapideak eta araudia betetzearen jarraipena.

e) Energia elektrikoaren garraio-sarearen plangintzaren berri ematea.

f) Laguntza-programen eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren berri ematea.

g) 2025-2030 aldirako Energia Pobreziaren aurkako Espainiako Estrategiaren, bonu sozialaren eta bazterketa larria pairatzeko arriskuan dauden kontsumitzaile zaurgarrien egoeraren berri ematea.

h) Energia-aurrezpenaren ziurtagirien egoeraren berri ematea.

i) Energia nuklearra Espainian.

j) Galde-eskeak.

7. 2025/07/30: Nafarroako kontseilariaren eta Energiako estatu-idazkariaren arteko bilera

Mikel Irujo

Manuel García Hernández

Miguel Rodrigo Gonzalo

Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren zuzendari nagusia

Energia-politika eta Meatzeetako zuzendari nagusia

Gai zerrenda:

1. REDEIA plan estrategikoa, Nafarroaren ekarpenak

2. Deialdiei buruzko informazioa:

a. Ministerioak autonomia-erkidegoei emandako laguntzen plangintza (moveak, industria deskarbonizatzeko laguntzak, autokontsumoa...).

b. Energia-aurrezpenaren ziurtagirien kudeaketa. Autonomia-erkidegoek funtsak eskatu dituzte izapideak egiteko (pertsonek), autonomia-erkidegoek egiten dutelako modu deszentralizatuan.

3. Industria-sektore berriztagarriarentzako laguntza. Europako sarea eta harremanak Europako Batzordearekin.

8. 2025/09/18:

Plangintza-bilera – Red Eléctrica – Energiako estatu-idazkaria

Mikel Irujo

Laura Larraya

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00376. Galdera, lehendakariaren agenda publikoari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak lehendakariaren agenda publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak PES-00376 galdera egin zuen. Bada, Nafarroako Gobernuako lehendakariak hau jakinarazten du:

Lehendakariaren eta bere kabineteko langileen agenda lan-dinamiken eta barne-iragazkien araberatik argitaratzen da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

11-25/PES-00377. Galdera, Foruzaingoak Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren salaketari emandako erantzunari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Garrido Sola jaunak Foruzaingoak Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren salaketari emandako erantzunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 31ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, 11-25/PES-00377 galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dakion. Bada, Nafarroako Gobernuako Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak jakinarazten du Foruzaingoak hau adierazi diola:

Praxi profesional txarrekoak izan daitezkeen jardun pertsonaletatik harago, Nafarroako Foruzaingoak, ezinbestekoa den eran, beretua du konpromisoa herritarrek hizkuntza-eskubideak egikaritu ahal ditzaten.

Horretan aurrera egin behar denez, giza baliabideetan bereziki, beharrezkoa da Foru Administrazio osorako aurreikusitako administrazio-prozedurari men egitea.

Hala, Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Departamentuaren 2020-2022 Hizkuntza Planean, lehentasunezko zatitza identifikatutako unitate organikoen zerrenda bat jasotzen da, eta euskara-profil jakin bat duten langileak eduki behar dituzte halakoek; besteak beste, Nafarroako Foruzaingoaren Komunikaziorako eta Herritarren Partaidetzarako Taldea da horietako bat, lurralde osoko herritarrei ematen baitzaie arreta bertan. Unitate organiko horretan, dagokion hizkuntza-eskakizuna esleitu zaio agente-lanpostuaren plaza bati.

Plangintza horren helburuei jarraipena emateko eta pixkanaka aurrerapausoak egiteko, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuaren

2023-2027 Hizkuntza Planak, 7/2024 Foru Aginduak, otsailaren 21ekoak, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariarenak, onetsi zuenak, helburu operatibo hau ezartzen du “hizkuntza-eskakizuna duten plazen kopurua handitzea, zerbitzua euskaraz emateko” 1. helburu estrategikoaren barruan: “hizkuntza-eskakizunen lehen plangintzaldiaren proposamena onestea”.

Beraz, dagoeneko nahitaezko baldintza da Nafarroako Foruzaingoko Komunikaziorako eta Herritarren Partaidetzarako Taldeak dituen hiru agente-lanpostuetako batek euskaraz jakitea. Egia da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako plantilla organikoko lanpostuei profil elebiduna esleitzeak Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren uztailearen 29ko 195/2022 Foru Aginduak ezartzen dituen ondorioak dituela; izan ere, foru-agindu horren bidez jakinarazten da zer prozedurari jarraitu behar dioten enplegatuek, beren lanpostuko hizkuntza-eskakizuna aldatzen bada. Arau horrek xedatzen du hizkuntza-eskakizuna ezarria duten plazak betetzen dituztenei hizkuntza-eskakizuna eskatuko zaiela, baldin eta plaza horretan diharduen langileak horretarako borondatea adierazten badu. Aldiz, borondaterik adierazi ezean, profil elebiduna esleitua duen plaza betetzen ari den pertsonari ez dio eraginen eskakizun horrek, eta, beraz, lanpostu

horretan jarraituko du, harik eta plaza hutsik geratu arte edo dagokion sarbide- edo zuzkidura-prozeduraz behin betiko betetzen den arte.

Bien bitartean, eta Komunikaziorako eta Herritarren Partaidetzarako Taldearendako gai sentsiblea izaki, jarraibide operatibo bat xedatu da, Nafarroako Gobernuak euskarazko testuak itzultzeko eskaintzen dituen baliabideak zein kasutan erabil daitezkeen jasotzen duena.

Hizpide den kasuan, testua itzultzeko aukera ematen duten baliabideak erabiltzeari uko egiteaz gain, idazkia euskaraz aurkeztea eragotzi zen, eta modu guztiz desegokian erantzun.

Horregatik guztiagatik, Komunikaziorako eta Herritarren Partaidetzarako Taldeak urriaren 14ko mezu elektronikoan Behatokiari barkamena eskatu zion, eta Foruzaingoa barne neurri egokiak hartzen ari da portaera tamalgarri hori izan zuen poliziarekin.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 18an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: María Amparo López Antelo

